

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

## *Mundaka*

Aurkibidea

# Udalerria: Mundaka

## Sarrera



Bizkaiko iparraldean dago, Busturialdea eskualdean. Xarma handiko arrantzaleen herria da eta Mundakako itsasadarraren ezkerreko aldean dago, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean. Iparraldean, Bermeo eta Bizkaiko Golkoa ditu mugakide; ekialdean, Urdaibaiko itsasadarra; hegoaldean, Sukarrieta; eta, mendebaldean, Bermeo eta Busturia. Urtero milaka surflari erakartzen dituen ezkerreko olatuak egin du ezagun Mundaka. Herriko ospakizunak nagusienak San Pedroren omenez ospatzen direnak eta inauteri-domekakoak direnak dira. Azken horretan, herritarrek Atorren (gizonezkoak) eta Lamien (emakumeak) mozorroak janzten dituzte.

- **Biztanleak:** 1.939
- **Euskaldunak:** %69,78

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **59**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **59**

## Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Mundakako ahotsak

## Hizlariak

### **Jesusa Andonegi Ormaetxe** (1924-2016)



Bermeogaz muga egiten duen Iturritxu baserrian jaio zen 1924. urtean. Aita zuen bertakoa, baserritarra; ama, ostera, Fruizkoa zen. Umetan, herriko eskolan eta mojetan ibiltzeaz gain Bermeora era joaten zen josten ikastera. Gerra garaiko eta baserriko bizimoduaren berri eman zigun elkarrizketan. Baserrian denetariko lanak egindakoa da eta bere ama bezala bera ere esne-saltzailea izan zen 35 urtez 21 etxetan.

### **Ramon Andonegi Ormaetxe *Iturritxu*** (1926)



Bermeogaz muga egiten duen Iturritxu baserriko semea, bere ezizenak dioskun legez. Aita zuen bertakoa, baserritarra; ama, ostera, Fruizkoa zen, esne-saltzailea. Lau neba-arrebatatik hiruk egin zuten aurrera. Gazterik hasi behar izan zen beharrean, baserriko bizimoduak horrela agintzen du-eta. Hori dela-eta, ahal zenean baino ez zen joan eskolara. 1937an istripu bat izan zuen eta ez zen sekula gehiago eskolara bueltatu. Sasoi hartan, gerran, etxetik atera zituzten ganadu eta guzti, baina laster bueltatu ziren bertara. 19 urtegaz baserria eta bertako bizimodu gogorra utzi eta soldadu joan zen. Soldadutzatik bueltan, nabigatzaile lanera joan zen. Itsasoan eta soldadutzan sukaldari lanetan aritu zen. Tartean Artxandako Trueba ikastetxeko sukaldaria ere izan zen bederatzi urtez. 30 urtez Bilboko Deustun bizi arren, sekula ez zuen ahaztu bere jaioterrria eta gerora ere bertara bueltatu ziren.

### **Jose Mari Sarasua Lezamiz (1929)**



Mundakakoa, aita Bilbon jaioa zen baina Mundakan adoptatua; ama, berriz, Bermeokoa. Aitak itsasoan egiten zuen lana eta ama Donostian egon zen neskame; Hondarribian ezagutu zuten elkar. Lau senidetan hirugarrena zen Jose Maria (anaia zaharrena umetan hil zen). Gerra hasi zenean, familia ihesi joan zen, Santarderrera. 1948an Ameriketara joan zen, artzain, Elkora (Nevada) bost urteko kontratuarekin. Istripu bat izan ostean, hilabete batzuetan Star Hotelean egin zuen lana, tabernari; osaba-izebak ziren hotelaren jabeak. Handik Boiserara joan zen lanera: behi hiltegi batean egon zen eta baita artzain ere; Winemuccan ere ibili zen meatzetan, hainbat hilabetez. Bere emaztea izango zena ezagutu zuen Boisen: Anita Garate (Boisen jaioa, baina euskal jatorrikoa) eta 1958an ezkondu egin ziren. 1964an Star hotela erosi zuen (Juan Aldazabalekin batera) eta Elkora joan ziren bizitzera; bertan jaio ziren beraien lau seme-alabak. 1989an hotela saldu eta Boiserara bueltatu ziren. Margolaria ere bada Jose Mari eta hainbat sari irabazi ditu.

### **Jesus Ugartemendia Learreta (1929)**



Goikokalean jaio zen, gaur egun desagertuta dagoen etxe batean. Goikokalean bertan hazi eta bizi izandakoa da. Aita Portuondo baserrikoa zuen eta ama Sukarrietakoa. Aita nabegatzailea izan zuen eta gerra garaian gudari ibili ostean, preso hartu eta hiru urtez egon zen kartzelan eta langile-batailoietan. Umetan, Tribisarrosen egon ziren fraideekin eta herriko eskola nazionalean ikasi zuen. Hamahiru urte gaz hasi zen beharrean eraikuntza lanetan. Bermeorako trenbidea egiten ere ibili zen nabigatzaile joan arte.

### **Pastore Uriarte Osa (1932)**



1932. urtean jaio zen Bermeon, baina gerra garaian Mundakara etorri ziren. Aita Bermeokoa zuen eta ama Mundakakoa. Bere aita ANV-EAeko sortzaileetariko bat izan zen. Gerra Zibilean, aita kartzelara sartu eta ama eta ahizpagaz batera Ingalaterrara joan zen bera. Aitak gero atzerrira egin zuen ihes eta sekula gehiago ez zen herrira bueltatu, deserrian hil baitzen. Bera Ingalaterratik herrira bueltatu zen, baina 12 urte zituela Durangoko ikastetxe batera joan eta han egon zen 18 urtera arte. Pasatakoak pasatu arren, bizimodu ona izan zutela dio.

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Baserria

### 1.1. Baserriko lana ez da egundo amaitzen

- **Hizlaria(k):** Andonegi Ormaetxe, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MUD-003/004
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua gogor-gogorra zen, goizean goizetik hasi behar ziren lanean, ez da egundo amaitzen. Uda gogorragoa zen batzeko eta gobernatzeko jenero asko baitzegoen; negua, ostera, lasaiagoa izaten zen. Behiak, oiloak, txerriak, astoa... zituzten.

#### Transkripzioa

-Zelakoa izeten zan baserrixe egun normal bat goixien goixetik hasitte?  
-Gogorra, gogorra orduen. Biher asko ein biher izeten zan. Ze handixik bizi be izeten zan ta bihera ein biher izeten zan. Goixien hasitte "de sol a sol" esaten dan lez. Ze hau ein biher da, baserriko bihera egunero ez da akabaten. Hau ein bozu hau dekozu ta baserriko bihera ordun oingo diferente...oingua ez da ize orduan. Ordun handixik bizitzen zan ta dana, baten ez bada behixek ez bada txahalak, txahalak ez bada oilluek edo txarrixek, edo bedarrak edo artuek edo garixek edo, beti egoten zan. Udie izeten zan gogortxuaue, ze uden generue egoten zan ba batzeko ta gobernateko. Negue ba trunkiltxuau apur bet, negue trunkiltxuau apur bet, ze eitten zan lez erreserbie ba bedarrak eta eitten zien sikuek ta erreserbie eitten zan lez ba, negu beti izeten zan trunkiltsuaue, baie udie gogorraue. Ta holantxe, hoixe zan gure bizimodue, harik eta handik eskapatia akordau arte hantxe, hantxe dale. Haxe zan gure bizimodue.  
-Ganaue eta danetarik euki zenduen? Ganaue eta animalixek-ta danetarik?  
-Bai, behixek ta txahalak euren txahalak ta astue ta txarrixek, oilluek, baserriko gauzek ba etxerako.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Goikokalea (MUD-001/002)

Goikokalean jaio eta hazitako da Jesus. Lehen Allende Salazar izena zuen, baina beti deitu izan diote Goikokalea. Ezkondu arte errentan bizi ziren.

## **2. Aita gudari preso harrapatu arte (MUD-001/004)**

Gerratean aita euskaldunekin joan zen eta Jesus amarekin eta arreba zaharrenarekin gelditu zen. Faxistak sartu zirenean, beraien aita Santoñan harrapatu eta preso sartu zuten. Deustuko unibertsitatean eta eskolapioetan ere egon zen preso.

## **3. Falangera joan behar jan ahal izateko (MUD-001/005)**

Gerratean aita atxilotu zuten eta bera falangekoengana joan behar izaten zen instrukzioa egiten "auxilio social"en jan ahal izateko, bestela ez zieten jaten ematen. Eguerdian eta gauetz joaten ziren bertara jaten eta ama baserrietan aritzen zen lanean alogeran. Falangea kasinoan egon zen hasieran eta gero udaletxeko eskolan, lehen solairuan. Neskak falange femeninara joaten zen, batzokia dagoen tokira.

## **4. Falangeko desfileak (MUD-001/006)**

Gerratean aita atxilotu zuten eta bera falangekoengana joan behar izaten zen instrukzioa egiten "auxilio social"en jan ahal izateko, bestela ez zieten jaten ematen. Faxistek herriren bat hartzen zutenean, desfileatu egin behar izaten zuten. Herri guztitik desfileatzen zuten militarrek bezala eta gero okinaren autoan sartu eta Sukarrieta eta Busturira joan zen berriro desfileatzera.

## **5. Falangeko arropak (MUD-001/007)**

Gerratean aita atxilotu zuten eta bera falangekoengana joan behar izaten zen instrukzioa egiten "auxilio social"en jan ahal izateko, bestela ez zieten jaten ematen. Falangeko arropak jostuna zen bere izekoak josten zizkion. Arropa zelakoa zen azaltzen du.

## **6. "Auxilio social"era jaten (MUD-001/008)**

Gerratean "auxilio social"era joaten ziren jaten eta non zegoen azaltzen du. Gaztetxoak eta zaharragoak ere joaten ziren. Bertan laguntzen egoten ziren emakumezkoak herriko falangistak izaten ziren, zelan janzten ziren dakar gogora.

## **7. Aita hiru urtez preso (MUD-001/009)**

Gerra garaian aita preso izan zuen eta bera bisitatzera falangista arropekin joan zen behin. "Auxilio social"en jan ahal izateko, falangera joan behar izaten zuen-eta. Bere aita Santoñan atxilotu zuten eta handik Bilbora eraman zuten. Gero Espainiako Caceresera eta Burgosera eraman zuten langile-batailoirak, etxera bueltatu arte.

## **8. Bermeoko Guardia bZibilen kuartela (MUD-001/010)**

Aita kartzelatik bueltatu eta egunero joan behar izaten zen Bermeoko Guardia Zibilen kuartelera. Kuartela non zegoen azaltzen du; Nestor Basterretxea eskultorearen familiari konfiskatutako etxea zen.

## **9. Gudariak eta italiarrak Mundakan (MUD-001/012)**

Mundakako hainbat etxetan gudariak zeuden lotan. Beraien etxean Amaiur batailoiko bi egoten ziren. Kasino azpira joaten ziren jaten. Gero italiarrak egon ziren eta Talan tankeak egoten ziren.

## **10. Ama beste etxe batzuetara lanera zer jan izateko (MUD-001/013)**

Bere aita preso zegoela bere ama baserrietara joaten zen alogeran, ortuko lanetan. Beste etxe batzuk garbitzera ere joaten zen. Gosea ezagutu zuten eta jangela sozialetara joaten ziren.

## **11. Euskara etxeko hizkuntza zen (MUD-001/014)**

Eskolan ez zuten euskaraz egiten, euskara etxeko hizkuntza zen. Gaztetan Bermeoko zein Mundakako erromerietara joaten ziren eta bermeotarren euskara apur bat desberdina zen.

## **12. Eskola frankistak (MUD-001/015)**

Eskolan erdaraz zen nagusi. Sartu orduko 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten besoa eta bandera altxatuz. Gerra aurretik Tribisarrosen egon ziren fraideetara joan zen eta gerraostean herriko eskola nazionalera. Udaletxeko zinegotzi batek goizean goizetik txakur handi bat eskatzen zien eta dirurik ez zuena etxera bidaltzen zuten diru bila, baina askotan ez ziren eskolara bueltatzen.

## **13. Fraideak onak ziren, eskolako maisuak ez (MUD-001/016)**

Gerra aurretik Tribisarrosen egon ziren fraideetara joan zen eta gerraostean herriko eskola nazionalera. Fraideetan mutilak baino ez zeuden. Fraideak kanpokoak ziren, ez ziren batere gogorrak. Eskola nazionaleko maisua, ostera, oso gogorra zen, don Santiago, kanaberarekin jotzen zituen umeak. 13 urterekin eskola utzi eta beharrean hasi zen.

## **14. Trenbidea egiten lanean (MUD-001/018)**

Hamahiru urtegez hasi zen beharrean eraikuntza lanetan. Eguneko hamar pezeta irabazten zituen eta Sukarrietatik Bermeorako trenbidea egiten hasi ziren orduan eta hara joan zen Jesus lanera, han hamahiru pezeta irabazten zituen. Portuondo azpiraino egin zutenean, itsasora joan zen lanera. Irabazitakoa amari eman behar izaten zion.

## **15. Itsasontzia hondoratu (MUD-001/019)**

Merkataritza-ontzi batean lanean zebilela, Avilesetik hurbil ontzia hondoratu zen. Kostaldean izan zen eta denak ondo atera ziren.

## **16. Basora dirua apur bat irabazteko (MUD-001/021)**

Basoko beharretan ere aritutakoa da egurra saltzeko. Herriko basoak ziren eta aizkora barik joan behar izaten zuten; izan ere, basozainak harrapatuz gero, aizkora kentzen zieten. Horregatik zerra erabiltzen zuten. Mutil gazte asko aritzen ziren horrexetan.

## **17. Mundakako portua (MUD-001/023)**

Mundakako portuan hiru bapote handi egoten ziren eta beste hiruzpalau ontzi txiki. Hilabetean behin ikatza zekarren balandro bat sartzen zen portura eta emakumeak joaten ziren bertara ikatz bila.

## **18. "Gasoliñue" itsasadarra zeharkatzeko (MUD-001/024)**

Itsasadarraren beste aldetik, Kanalatik, gizon batek egurra ekartzen zuen batean Mundakara. "Gasoliñue" deitzen zien bi ontzi zeuden itsasadarraren alde batetik bestera ibiltzen zirenak. Ganadua ere soka batekin helduta zeharkatzen zuten. "Gasoliñue" Busturiko eta Antzorako (Ibarrangelu) bi gizonek gidatzen zuten.

## **19. Karabineroak (MUD-001/025)**

Karabineroen txabola non zegoen azaltzen du. Behargin finak ziren. Itsasoko kontrabandoa kontrolatzen zuten. Guardia zibilak ere egoten ziren.

## **20. Itsasoko kontrabandoa (MUD-001/026)**

Itsasoko kontrabandoa Francoren garaian hasi zela dio. Berak 16 urte zituela zamaontzi batean hasi zen lanean eta orduan apur bat ezagutu zuen, baina ez askorik. Kontrabandean ekartzen zutena karabineroekin elkarbanatu behar izaten zuten arazorik ez izateko. Guardia zibilekin baino hartu-eman hobea zuten karabineroekin.

## **21. Neska-lagunagaz berba gutun eta telefono bidez (MUD-001/028)**

Emaztea Mundakan aritu zen neskame gaztetan eta orduan ezagutu zuen. Bera itsasoan zebilen beharrean eta gutun bidez eta telefono bidez zuten hartu-eman. Telefonoz berba egiteko aurretik zehaztu behar izaten zuten hitzordua. Mundakan telefonoa non zegoen azaltzen du.

## **22. Goikokalean paseatzen (MUD-001/029)**

Neska-laguna paseatzen ezagutu zuen. Goikokalean zehar, alde batetik bestera, paseatzen zuten. Ez ziren tabernetara joaten.

## **23. Gramola eta plazako giroa (MUD-001/030)**

Gramolarekin baltsean aritzen ziren. Fielatoan egoten zen gizona, Fraga, arduratzen zen diskoak jartzeaz. Bermeo eta Busturiko jende asko etortzen zen. Gernikatik mutilak baino ez ziren etortzen. Mutilak joaten ziren neskengana dantzan egiteko eskatzera. Bermeoko mutil berezi bat ere etortzen zen eta bera bakarrik aritzen zen plazan bertaratutako guztiak berari begira zeudela. Komedianteak plazara etortzen zirenean, denak joaten ziren ikustera.

## **24. "Diente" jolasa, txilipitoka, fruta lapurretan... (MUD-001/033)**

Mundakan ez zegoen desberdintasunik baserritarren eta kaletarren artean. Gainera, baserri gutxi daude bertan eta denak batera ibiltzen ziren. "Dientera" jolasten zuten, zelan jolasten zen azaltzen du. Pilotan, txilipitoka edo aroarekin ere aritzen ziren. Txilipitoka zelan jolasten zen. Neskak aparte jolasten zuten. Pilotan artileagaz egiten zituzten.

## **25. Fruta lapurretan eta konfesioak (MUD-001/034)**

Frutak lapurtzen ere abilak ziren gaztetan. Non lapurtzen zuten azaltzen du. Behin, domeka batean, San Pedro makatzak ostu eta kartzelan sartu zuten arratsalde guztian zehar. Konfesatzera joan behar izaten zirenean, abadearen arabera zigorra desberdina zen.

## **26. Lehen Jaunartzea euskaraz (MUD-001/035)**

Lehen Jaunartzea gerra aurretik egin zuenez dena euskaraz egin zuen. Don Florentino abadea desterratu egin zuten euskaraz egiteagatik eta gero gerraosteko dotrina erdaraz izan zen. Zapatu arratsaldetan eskolan arrosarioa errezatzen zuten. Eskolan eta lanean ere domeka zen asteko jaiegun bakarra.

## **27. Eskolara 11 urtera arte eta gutxi (MUD-003/003)**

Gazterik behar asko egin behar izan zuten eta eskolara gutxi joan zen. Ahal denean joaten ziren herriko eskolara, denbora ona zegoenean etxean egin behar baitzuten behar. Don Castor fraidearekin zegoela jakin zuen gerra zetorrela. Orduan herritik alde egin zuten fraideek. 1937ko maiatzean egurra txikitzen zegoela begian min hartu zuen eta begia galdu zuen. Hamaika urte zituen orduan eta ez zen gehiago eskolara bueltatu.

## **28. Etxeko jeneroa jaten zuten, beti gauza bera (MUD-003/005)**

Etxean hazten zuten txerria urte osorako jatekoa zen. Astelehenean prestatutako indabak aste guztirako izaten ziren; domeketakoa den desberdina, garbantzua-edo. Gauetan patata saltsa berdean janda konformatzen ziren. Zegoenagaz konformatu eta isil-isilik jaten zuten, kexa barik eta aukeratzeko aukera barik.

## **29. Artilez eta garafaz egindako koltxoiak (MUD-003/006)**

Ez zuten gaur eguneko moduan janzteko aukerarik. Oheak ere desberdinak ziren, gutxitan aldatzen zituzten izarak. Artilez egindako koltxoiak izaten ziren; artile garbitu, altsitu, jo eta tela barruan josi. Arto-azalarekin ("arto-garafak") ere egiten zituen koltxoiak, baina ligorrakoak izaten ziren.

## **30. Artoa eta labasua (MUD-003/007)**

Artoaren atal guztiak aprobetxatzen dira. Garafa (azala) ganaduak jaten zuen. Artaburuaren asta sikua zen, baina neguan besterik egon ezean aprobetxatu beharra zegoen ganaduentzat nahiz eta ez balio esnea emateko. Adreilu bereziz egindako labean egiten zuten labesua: artaburuak garandu orduko bertan txigortu. Ostean garandu eta errotara eroaten zuten irina egiteko. Labatik pasatutako artoa gozoagoa zen "haizartua" baino, haizeak sikatutako baino.

## **31. Errotara ezkutuan (MUD-003/008)**

Bermeoko Artika auzoko errotetara joaten ziren, errota asko zeuden eta lantzean batera joaten ziren. gerra garaian ez zuten uzten ehotzen eta gauez joaten ziren ezkutuan. Busturira eta Sollubetik gora Fruizko Errotabarrira ere joandakoa da mutikotan. Mundakan ez zegoen errotarik. Errotara eroandako jeneroaren ehuneko hamarra kentzen zion errotariak baserritarrari.

## **32. Eguzkiarekin gari-jotzea errazagoa da (MUD-003/010)**

Errotara eroandako jeneroaren ehuneko hamarra kentzen zion errotariak baserritarrari. Garia eskuz jotzen zuten eta beroa eginez gero arinago egiten zen, garaua arinago irteten zen-eta. Gero makinaz hasi ziren jotzen, baina Ramon ordurako nabigatzen joana zen. 19 urterekin joan zen soldadutzara eta orduan utzi zituen baserriko lanak.

### **33. Lurra lantzeko tresnak (MUD-003/012)**

Goldea, area, narra... erabiltzen zituzten lurra lantzeko. Bakoitza zertarako zen azaltzen du. Behian izaten zituzten lanerako. Buztarriginak.

### **34. Zapak (MUD-003/014)**

uztarria jartzerakoan ganaduari zapak jartzen zaizkio. zapak zertarako diren azaltzen du.

### **35. "Gazunaskak" eta izozkailurik gabeko bizimodua (MUD-003/016)**

"Gazunaskak" gatzez betetako askak dira. txerria hiltzerakoan bertan sartzen zuten urte osoan zehar ondo kontserbatzeko. Pagoaren eta haritzaren egurra erabiltzen zuten. Izozkailuak zeudenik ere ez zuten jakiten. Etxeko leihoak sare batekin babesten zituzten katuak ez sartzeko eta gauean bertan jartzen zuten esnea hozten. Egunean eguneko jaten zuten, eguerdian sobratutako gauean, ez baitzuten non gorde.

### **36. Gurdia (MUD-003/018)**

Itsasertzeko haitzetara gutxitan joaten ziren, ez zuten horretarako astirik etxean lan asko izaten zituzten eta. Egurrezko gurdia izaten zuten etxean. Elkarrizketatzaileak irudi bat erakutsi dio eta berak gurdiaren zatiak zeintzuk diren aipatzen ditu.

### **37. Behien gaixotasunak (MUD-003/019)**

Behien gaixotasunak aipatzen ditu. Batzuk puztu egiten ziren eta horiei gasa atera behar zitzaien. Nafarrerria. Berrogeialdian egon behar izaten zuten karez garbitutako kortan. Gernikako Pedro albaitaria joaten zen beraienera.

### **38. Karea (MUD-003/020)**

Kortarako karea Busturiko San Kristobaleko karobitik ekartzen zuten. Karea solora botatzeko ere ona da ongarri bezala.

### **39. Asturiastik ekarritako ikatza (MUD-003/022)**

Etxean ikatz gutxi erabiltzen zuten, baina ez egur-ikatza. Asturiastik (Espainia) Bermeora itsasontzietan ekarritakoa. Diru gutxi zuten eta gutxi erabiltzen zuten.

### **40. Modesta "Kojie" (MUD-003/024)**

Ikastetxe desberdinetan aritu zen umetan. Goikokaleko Modesta "Kojie" muxikarrarengana ere joaten zen umetan, baina hark behar asko ematen zien animaliak zituen-eta.

### **41. Fraideak eta herriko eskola (MUD-003/025)**

Ikastetxe desberdinetan aritu zen umetan. Fraideetan eta herriko eskolan ere ibili zen. 1937. urtean begian min hartu ez zen gehiago eskolara bueltatu. Fraideak euskaldunak ziren, eskolako Santiago, ostera, ez.

### **42. Erdaraz egiteko arazoak (MUD-003/026)**

Kalean dena egiten zuten euskaraz, eta Francok hori debekatu zuenean asko kostatu zitzaien.

### **43. Zaldarrarentzako etxeko erremedioa (MUD-003/031)**

Zaldarrak kentzeko beraien amak egiten zuena: kipula zartaginean jarri eta hura jarri azalean.

### **44. Behien zaldarrak (MUD-003/032)**

Behiek ere izaten zituzten zaldarrak hotz-beroaren eraginez. Ar zuri bat bezalakoa zen eta errez kentzen zen. Santanderreko behiek horrelako asko izaten zituzten; hango esne-behi asko egoten ziren hemen.

### **45. Gernikako bonbardaketa (MUD-003/034)**

Gernika erre zuten garaian, trena Sukarrietaraino zegoen ez Mundaka edo Bermeoraino. Bere aitak egun hartan txerrikume bi erosi behar zituzenez, Ramon arratsaldeko hiruretako trenera astoz joan zen txerrikumeak jasotzera Sukarrietara. Aita Gernikan geratu zen. Txerrikumeak asto-otzaretan sartu eta etxera bueltatu zen. Portuondon zegoela, zarata entzun eta Ogoño gainera hirunan-hirunan bederatzi aireplano zetozela ikusi zuen. Handik gutxira leherketen zaratak eta ke beltza ikus zitezkeen. Bazekien Gernikatik zetorrela eta bera arduratuta zegoen aita bertan zegoelako.

### **46. Gernikako astelehenetako eria (MUD-003/035)**

Gernikako bonbardaketa astelehen batean izan zen. Inguruko herrietako jende asko batzen zen Gernikan astelehenetako erian. Ez du gogoan mundakarrik hil ote zen egun hartan Gernikan.

### **47. Iturritxuko iturria (MUD-006/003)**

Beraien jaiotetxeari Iturritxu deitzen diote iturburua baitu bertan eta auzoak bertara joaten ziren ur bila. 35 urtez esnea eroan izan du Bermeora. Ez zenez bermeotarra zerga kobratzen zioten eta esnari ur apur bat botatzen zion aurreztu asmoz.

### **48. Aita etxera dirua ekar zezan adoptatu zuten (MUD-006/004)**

Bere ama Fruizkoa zen eta aita adopzioan ekarri zuten Iturritxura. Iturritxun andre alargun bat bizi zen alaba bigaz eta mutil beharra zuten etxera dirua ekartzeko. 12 urte zituela etorri zen Mundakara eta lanean zebilela, Bermeoko fraideetara joaten zen irakurtzen eta idazten ikastera.

### **49. Bizimodu gogorra (MUD-006/005)**

Jesusak bizimodua gogorra izan du, gazterik alargundu zen. Ordura arte ere gizona itsasoan egoten zen lanean eta baserritik aurrera ateratzeko alogeran hartu behar izaten zuen norbait.

### **50. Gailetan truke errekadutan (MUD-006/008)**

Herriko eskolara joateko errepidea gurutzatu behar izaten zuten eta aitak ordaindutako ikastetxera, komentukora, bidali zuen. Baina Jesusak askotan gurutzatzen zuen errepidea etxekeok jakin barik; izan ere, andre batek errekaduak egitearen truke saria ematen zion: gaileta gozo-gozoak.

### **51. Komentuko ikastetxea eta josten Bermeora (MUD-006/011)**

Komentuko ikastetxeko mojak dakartza gogora. Bertan ez zuen josten ikasi, Bermeon baino. Bermeon josten zebilen etxean egiten zuen lo domeketan gauetz etxera ez bueltatzeko.

### **52. Luxuzko ezkontza-bazkaria (MUD-006/012)**

Bermeon josten ikasi zuen etxeokak egin zion gerora bere ezkontzako soinekoa. Demiku auzoko ermitan ezkondu zen Jesusa. Bere aitak gerra garaian Gernikatik ekarritako adreilu batzuekin egindako tejabana batean egin zuten 63 lagunek bazkaria. Adreiluak kamioi batean eta astoz garraiatu zituzten. Jesusak esnea eramaten zuten taberna batekoak prestatu zion bazkarirako behar zuten guztia. Sukaldari bat hartu zuten eta Mundakako gozodendatik eroan pastelak.

### **53. Eztei-bidaia Bilbora (MUD-006/014)**

Ezkontzerakoan Bilbora joan ziren, gizonaren arrebengana. Zortzi egun egin zituzten bertan eta etxetik eroan zuten jatekoa. Horietako egun batean Donostiara joan ziren egun pasa.

### **54. Baserriko beharra gogorra da (MUD-006/020)**

Baserriko beharrak gogorrak dira: goizeko sei etan altxatu eta gaueko hamabietan oheratu. Jatorduak beti ziren antzekoak. Goizean goizetik aita altxatzen zen eta denei prestatzen zien kafea. Ostean denak hasten ziren eguneroko eginbeharretan. Jesusak sekula ez ditu behien satsak egin, ez ei zen emakumezkoen lana. Alogeran hartutako jendea izaten zuten etxean, bat hogeitaz izaten zuten.

### **55. 20 urtez morroi bera etxean (MUD-006/021)**

Hogei urtez beraien etxean morroi lanetan aritu zen bat jan onekoa zela dio. Behin apustua egin zuen untxi oso bat arrozarekin jateko gai zela. Mundakan zegoen beste neskame batekin ezkondu zen, baina beraienean irabazitakoaren ia ezinezkoa zen ezkontzea eta orduan itsasora joan zen lanera.

### **56. Azpigarritan basora (MUD-006/022)**

Bere aitak esaten zuenez kortako azpiak egitea ez zela emakumeen lana, ez zuen horrelakorik egiten. Hala ere, azpigarritan askotan joaten zen basora. Gaur egun makina asko dago baserriko lanetarako, lehen askozaz gogorragoa zen.

### **57. Goldea, area eta karramarroa baserriko lanetarako (MUD-006/027)**

Goldea eta area ziren erabiltzen zituzten makinak baserrian. Bakoitza zertarako erabiltzen den azaltzen du. Geroago karramarroa izan zuten. Lurra zelan prestatu behar zen. Ez zuten gaur eguneko erraztasunik, norberak sakrifikatu behar zuten.

### **58. Uztarria (MUD-006/028)**

Behiak uztartu behar izaten zituzten beraien aurretik joateko. Uztarria zelan jartzen zitzairen azaltzen du, bi lagun beharrezkoak ziren hori egiteko. Uztarri

baten irudia du aurrean eta horrekin batera azaltzen du. Mundakan ez du  
uztarriginik ezagutu, Mungian zegoen 'Buzterri' ezizeneko bat.

---

**Mundaka (Bizkaia)** | ahotsak.eus Orr.

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com